


ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Zubillagako Gabonak

Orain dala berrogeta hamar bat urte **bazan Zubillagan mobimendua** eta gauzak egitteko gogua. Egixa da momentu latzak be pasau zirala lehentxuago: Forjak Azkoittira eruatiak **erasan haundi samarra** egin otsan auzuari eta, hori zelabait konponketako, **beste industria batzuk sortzeko ahalegin serixuan** ziharduain batzuk; orduan jarri ziran, esaterako, kooperatiba batzuen oiñarriak: kale aldian **Ulma** inddarketan hasi zanian, Zubillagan be **Gaitu** jaixo zan, gerora **Enara** izena hartuko ebena.

Kultura esparruan be etziran atzian geldittu zubillagarrak eta orduan Oñatin eratu guran ebitzen **ikastoliaren lehenengo pausuetan partehartze zuzena** euki euen: kaleko ikastolako lehenengo andereñua auzokua zan eta laister asmau zan bertako umiai be eskolia euskeraz emuteko modua. **Neskaitilen dantza-taldia** kalian baiño lehenago abixau zan eta 1970eko I. Haurren egunian zubillagarrak izan ziran Oñatiko ordezkariak. Giro horren barruan antolatu ziran urte hareittan **Gabonetako ibillaldixak**, karroza eta guzti. Argazkixetan ikusten diran jaiotza dotoriak eta ume-pillatxuak garbi adierazten doskue Zubillagan baten batzuk majo saiaketan zirala organizaziño-lanetan.

Dana dala, badakoi fotografixok bestelako interesik. Sasue bateko ohittura eta ospakizunez gain, **auzuaren historia industrialaren testigantza grafiko inportantiak** erakusten dittue-eta. Bestiak beste, ola zaharraren instalaziñoak aprobetxauaz, hainbat urtian lanian jardun eben **Forjetako fabrikiaren zati bat**; hango **langillientzako** jasotako **etxe-illariaren ikuspegixa**; edota orduan Zubillagan **zerrak** euki euen garrantzixaren lekukotasuna. Handik 10-15 bat urtera ezkutauaz fan ziran ixa danak.

Argazkixak 1960ko hamarkadiaren azken aldikuak izango dira, Manolo Etxanizek ataratakuak, seguruenik. Guri Arantxa Elortzaren bittartez aillegau xaku. Milla esker!